



TOLOSAKO
UDALA

APARTEKO OSOKO BILKURA

2019.06.04

Tolosako Udaletxean, 2019ko ekainaren 4an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Aparteko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaia aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 4 de junio de 2019, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre el punto del orden del día que se relaciona:

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Eguneko gaia zerrenda

- 1 2019/1 erreparoa
2. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena
3. Hasierako onarpena: 2019/7 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
4. Hasierako onarpena: 2019ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamena.
5. 2018ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Orden del día

1. Reparo legal 2019/1
2. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.
3. Aprobación inicial del expediente de modificación de crédito 7/2019, en la modalidad de crédito adicional.
4. Aprobación inicial de la modificación del anexo de subvenciones de 2019.
5. Dar cuenta de la liquidación del presupuesto de 2018.



- | | |
|---|--|
| 6. 2019/1 kreditu txertaketa modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/444 Alkatetza Dekretuaren berri ematea. | 6. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/444 del expediente de modificación de crédito 2019/1, en la modalidad de incorporación de crédito. |
| 7. 2019/2 kreditu gaikuntza modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/445 Alkatetza Dekretuaren berri ematea. | 7. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/445 del expediente de modificación de crédito 2019/2, en la modalidad de habilitación de crédito. |
| 8. 2019/3 kreditu gaikuntza modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/751 Alkatetza Dekretuaren berri ematea. | 8. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/751 del expediente de modificación de crédito 2019/3, en la modalidad de habilitación de crédito. |
| 9. 2019/4 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/752 Alkatetza Dekretuaren berri ematea. | 9. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/752 del expediente de modificación de crédito 2019/4, en la modalidad de crédito adicional. |
| 10. 2019/5 kreditu txertaketa modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/779 Alkatetza Dekretuaren berri ematea. | 10. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/779 del expediente de modificación de crédito 2019/5, en la modalidad de incorporación de crédito. |
| 11. 2019/6 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/879 Alkatetza Dekretuaren berri ematea. | 11. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/879 del expediente de modificación de crédito 2019/6, en la modalidad de crédito adicional. |
| 12. Tolosako udalaren jabetzako eraikinak berritu eta erabilerak antolatzeko irizpide orokorrak jasotzen dituen egitasmoa onartzea. | 12. Aprobación del plan para la rehabilitación y reorganización de los usos de los edificios propiedad del Ayuntamiento de Tolosa. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1 2019/1 erreparoa

1. Reparo legal 2019/1

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *"Erreparoa gai zerrendaren lehenengo puntua da, bigarren puntua itxitako ekitaldiko fakturen onarpena datorrelako eta bertan agertzen delako Bellotaren faktura. Ingera honek erreferentzia egiten dio Usabalgo pabiloiari, non dakizuen bezala Iñauterietako karrozak gordeta dauden. 2017. urtean kontratu sinatu zen urtebeterako. Kasu horretan lizitaziorik gabe arrazoia izan zen Hirigintzako txosten baten egiaztatzen zuela karrozak gordetzeko baldintza betetzen zituen pabiloi*



bakarra Bellota zela. Kontratua berritu ahal izateko, orain bai, lizitazio baten legezko egin beharraren ohartarazpen bat egon da eta dagoeneko lizitazio publiko horri hasiera eman zaio Tokio Gobernu Batzarrean, publikitatea, berdintasuna eta lehia printzipioak bermatuz. Bitartean, eta kontutan izanda kontratu amaitu ondoren karroza pabiloian gordeta jarraitzen dutela 2018. urte amaierako gastu konpromisoa denez, ingera ebaztea udalbatza plenoari dagokio. Kultura departamentuak egiaztatu eta onartu du ordaintzearen aldeko iritzia, baita ere udal idazkariak bere ohartarazpena egin ondoren eta faktura hori ordaintzeko lege oinarria da administrazioaren ordaintzearen bete beharra ez dela oinarritzen inolako kontratu edo negozio juridikoan baizik eta administrazioaren arrazoirik gabeko aberastearen printzipioan.”

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Batzordean esan genuen, ingera honen aldeko botoa eman genuen baina gure kezkek azaldu genituen. Izan ere, orain dela zazpi hilabete, ia zortzi sortutako egoera bati nahi diogu aurre egin. Kontratua orduan bukatu zen eta ez dugu ulertzen nola iritsi garen maiatzera arte jaon den urteko abendua eta azaroa Bellotaren jabeari ordaintzeko bidea aurkitu arte. Uste dugu asko luzatu dela egoera, ez dakigu arazo teknikoa izan den, politikoa izan den, arazo politiko-teknikoa izan den, baina kasu isolatua izan balitz gaitz erdi, gerta litezke horrelakoak etxe onenatarikoa ere. Antzeko egoera gaude orain, amaitu berri diren edo amaitzear dauden bi kontratatuen egoera berdintsua da. Oraindik ez da lehiaketara atera edo atera berri dira edo atera bidean daude. Alegia, kontratua bukatu denean horren jarraipena nola izango den ez dago erabakita. Ari naiz Leidorren kontratua maiatzean bukatu dena eta OTAren kontratuaren buruz hil honen bukaeran bukatuko dena. Badakit kontratu lege berria eta horrelako gauza batzuk aipatu daitezke, egin behar direla hainbat txosten martxan jartzeko administrazioa asko geldiarazi duela, baina iruditzen zaigu holako erabakien aurrean ezin dela azken momentu arte gauzak luzatzen ibili. Ingera honen kasuan Bellotako nagusiari pagatu behar dioguna oso garbi ordaindu behar zaiola, ezin da itxoin zortzi hilabete hori nola bideratu erabaki arte. Lehenago behar zuela honek.”*

... Alkatea: *“Zerbait aipatzearen badakizue Bellotan karroza egon aurretik Deltan egon zirela. 2013an egin zen lehenengo kontratua Deltan karrozan egoteko, 2014n bestea, 2015ean bestea, 2016n bestea eta 2017n gero sutea izan zen eta orduan trasladoa Bellota pabiloira. Kontratu guzti horietan ez zen lizitazioaren beharrik egon, behar hori orain agertu da. Kontua da, legealdi guztiak daukatela bere egoera eta amaitzear dagoen legealdi honek ere berea izan du. Legealdi honetan hainbat korapilo askatu behar izan ditugu. Kasu honetan faktura honi dagokionez, Udalbatzari dagokio iritzia ematea lehen aipatu ditudan arrazoiak direla medio. Beste hainbatetan, alkateak egin behar izan dio aurre egoerari eta izan dira hainbat kasu. Adibidez hiribusarekin soluzioa bilatze aldera hartutako erabakietan, lurreamendi egoitzaren langile lanpostuaren balorazioaren aplikazioari dagokionean, eta gaur egin diogu ere baita ere, ezta?. Baita ere Enplegu plana gauzatzea izan da beste askatu beharreko korapilo bat, eragile guztien adostasunekin egin dena legealdi honetan edo Tolosako Musika Bandaren hogeita bost urteko hitzarmena izan da beste korapilo bat ere askatu egin dena. Brigada eta Udaltzaingoaren aparteko orduen egoera beste korapilo bat zen askatu behar zena eta askatu dena. Esan nahi dudana da legealdi bakoitzak bere erronkak dituela, datorrenak ere*



izango dituela hainbat eta hainbat korapilo askatu beharreko Herritarren Arreta zerbitzuari dagokiona, udal barruko antolaketari ere buelta bat eman behar zaio. Langile lanpostuen balorazioari dagokiona. Nik uste dut bidean azalduko direla hainbat eta hainbat korapilo eta uste dut elkar lanean arduraz eta erantzukizunez denon artean lortu dugula korapilo horiek askatzea.”

OGASUN BATZORDEKO 2019KO MAIATZAREN 30EKO IRIZPENA

Kontu-hartzaileak 2019/1 erreparoa aurkeztu du.

AURREKARIAK

LEHENA.- Udal Kontuhartzaileak ondoan transkribatzen diren ordainagiriei buruzko legezko ingera aurkeztu du:

“2017an Usabal dagoen pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zen, urtebeteko kontratua zen, 2017ko azaroaren 1ean hasita eta 2018ko urriaren 31n bukatuta. Hortik aurrera Udalak erabiltzen jarraitu egin du.

Udaletxeko gastuei dagozkien fakturak beharrezko oniritzia dutenean, onarpena dekretu bidez egiten da. Hau da, onarpena Tolosako Udaleko lehendakariaren ebazpenez egiten da, ondorengo xedapenak agindutakoari jarraituta: 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa (41.2 artikulua).

Honako faktura honek dago:

Hirugarrena	CIFa	Data	Faktura zk.	Kopurua	Azalpena	Kontratuaren egoera
Hierros Bidania, SL	B20096798	2018/11/30	176/1	6.957,50€	2018ko azaroko Usabalgo pabiloiaren alokairua	Ez du kontraturik. 2018ko urriaren 31n kontratua bukatu zen

BIGARRENA.- Egoera honen aurrean, Udal Kontuhartzaileak 2019/01 lege-eragozpena aurkeztu du 2019ko maiatzaren 24n egindako txostenean, ondorio hauek azalduz:

Gastu hau egiteko konpromisoa legez ezarritako tramiteak jarraitu gabe hartu da. Zegoen kontratua bukatu ondoren pabiloi erabiltzen jarraitu egin da titulurik gabe.

Beraz, 21/2003 Foru Arauak bere 70. artikuluan xedatutakoari jarraituz INGERA EDO ERREPARO LEGALA egiten dut. Honek espedientearen izapidetzea etengo du harik eta ebazten ez den arte.



TOLOSAKO
UDALA

Kasu honetan, Osoko Bilkurari dagokio erreparo honi ebazpen bat ematea arrazoi honengatik:

- 2018ari dagokion gastu-konpromisoa delako.

Kultura Teknikariak azaldu du bere adostasuna aurkeztutako ordainagiriarekin SAREKO programa informatikoan, kontratua amaitu ondoren pabiloiaren erabilera jarraitu duelako.

AZTERKETA JURIDIKOA

Lehena.- Organo eskuduna

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuak arautzen dituenak, bere 70. artikuluan ondorengo hau xedatzen du: Kontuhartzailtzak eragozpena egin, eta eragindako organoak bere desadostasuna adieraziko balu, Toki entitateko Lehendakariak ebatzi beharko du eztabaida, eta bere erabakia betearazi beharrekoa izango da.

Kasu honetan, aurrekarietan aipatu den moduan, Tolosako udaleko Kultura Teknikariak fakturaren ordainketarekin bere adostasuna azaldu du, lokalaren okupazioa eman dela egiaztatu ondoren.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatea da Udal Korporazioaren Lehendakaria. Halaber, 21.1.f) atalak xedatzen duenez, Alkateari dagokio udalaren kudeaketa ekonomikoa onartutako aurrekontuaren arabera, eta bere eskumenaren barruan gastuak agintzea.

Hala eta guztiz ere, ordainagiria 2018. urteari dagokion gastu-konpromisoa dela ikusirik, ingera ebaztea Udalbatza Plenoari dagokio, Udal Kontuhartzailearen txostenean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.- Tolosa udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako ebazpena.

Egoera honen aurrean, Tolosa Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Inauterietako karrozak gordetzeko pabiloi bat errentan hartzeko kontratazio-espeditatea onartu ondoren, lizitazio publikoari hasiera ematea ebatzi du. Beraz, Tolosako udalak bidea jarri du egoera honekin amaitzeko, aipatu xedea duen pabiloi bat errentan hartzeko, publizitatea, berdintasuna eta lehia printzipioak bermatuz.

Hirugarrena.- Faktura ordaintzeko lege-oinarria

Une honetan, txostenean aipatu den faktura ordaintzeko dagoenez, udalak erabaki bat hartu behar du. Horretarako, kontuan hartu behar da Epaimahai Gorenak, honelako kasutan -kontraturik gabe edo hitzarturiko kontratutik at egindako gastuen kasuetan-, emandako epaietan xedaturikoa, zera, administrazioaren ordainketaren betebeharra ez dela oinarritzen inolako kontratu edo negozio juridikoan, administrazioaren arrazoirik



TOLOSAKO
UDALA

gabeko aberastearen printzipioan baizik. Hona hemen gai honi buruz emandako epai batzuk:

1) 2008ko apirilaren 28an Epaimahai Gorenak emandako Sententziak honako hau xedatzen du:

"CUARTO.- En la STS de 21 de marzo de 1991 se afirma que "el enriquecimiento sin causa viene a corregir situaciones de total desequilibrio, en relaciones que, carentes de ropaje jurídico, materialmente han existido produciendo beneficios concretos en una de las partes, a costa de la otra. Con ello se originan unos efectos sin causa - enriquecimiento y empobrecimiento- al no venir respaldados por las formas exigidas en el régimen administrativo. Mas estos efectos, sin causa, por la forma, se convierten en determinantes de la causa que los corrige y repara".

Y recordábamos en nuestras sentencias de 18 de diciembre de 2007, recurso de casación 11195/2004 , 2 de octubre de 2006, recurso de casación 1232/2004 y 20 de julio de 2005, recurso de casación 1129/2002 , la doctrina del enriquecimiento injusto que pudiera derivar de la ejecución de una obra para la Administración y del equilibrio económico que debe mantenerse en el cumplimiento del contrato a que se refiere la sentencia de esta Sala de 25 de febrero de 1991 , siguiendo lo vertido en las de 20 de diciembre de 1983 y 2 de abril de 1986 , significa la exigibilidad por el contratista del pago del exceso de obra necesario para completar el proyecto.

O en términos de la sentencia de 18 de julio de 2003 el desequilibrio ha de estar constituido por prestaciones del particular que no se deban a su propia iniciativa ni revelen una voluntad maliciosa del mismo, sino que tengan su origen en hechos, dimanantes de la Administración pública, que hayan generado razonablemente en ese particular la creencia de que le incumbía un deber de colaboración con dicha Administración.

Así se ha admitido tal doctrina en el ámbito de los contratos de obras en modificaciones ordenadas por el Director Técnico del Proyecto con el consentimiento tácito o expreso de la administración afectada (20 de diciembre de 1983, 2 de abril de 1986, 11 de mayo de 1995, 8 de abril de 1998) o modificaciones ordenadas por el Director no contempladas en el Proyecto pero, en general, ajustadas a las circunstancias previstas en su desarrollo (sentencias de 12 de febrero de 1979 , 12 de marzo de 1991 , 4 de marzo de 1997), u obras efectivamente realizadas por el contratista y que fueron efectivamente ejecutadas con pleno conocimiento y consentimiento del Equipo Técnico Municipal sin objeción alguna (sentencia de 22 de noviembre de 2004, recurso de casación 4574/2001).

Incluye también una prórroga de un contrato no pactada aunque si prestada de buena fe por la contratista siguiendo ordenes de la administración (sentencia de 13 de julio de 1984) así como un pago a un subcontratista a consecuencia de una subcontrata con consentimiento tácito de la administración en que hubo incumplimiento contractual por ambas partes contratantes.

Y también el exceso de obra realizado y que estuvo motivado por una iniciativa de la propia Administración sin que esta hubiere cuestionado su importe (sentencia de 11 de julio de 2003, recurso de casación 9003/1997).



TOLOSAKO
UDALA

Asimismo, sin perjuicio de la eventual responsabilidad de las autoridades y funcionarios de un Ayuntamiento que contrató de forma ilegal unas obras de pavimentación, se ha aceptado deberían ser pagadas para no producir enriquecimiento injusto del Ayuntamiento, contrario a la justicia distributiva y a la necesidad de restablecerla, a lo que está obligado este Tribunal. (STS 24 de julio de 1992, recurso de apelación 4011/1990)"

Kasu honetan, udal Kontuhartzaileak aurkeztu dituen ingerek Kultura departamentua eragiten dute. Beraz, espedientea helarazi zitzaien, egindako ingeren aurrean bere adostasuna ala adostasun eza azal dezala.

Zentzu honetan, *El Consultor de los Ayuntamientos* aldizkariaren 23/2009 alean honako hau adierazten zen: *"El trámite, en el caso de reparos con efecto suspensivo, obliga a que el expediente sea remitido al órgano a que afecten. Si dicho órgano se pliega a las indicaciones del Interventor, rectificará en consecuencia la propuesta, que ya podrá, por tanto, ser fiscalizada de conformidad y seguir el trámite normal. Pero, si aquél no está de acuerdo con el reparo y mantiene su postura, la decisión corresponde a un órgano superior, que en principio será el originariamente competente para acordar el acto, salvo en el caso en que dicho reparo se base en insuficiencia o inadecuación del crédito.*

2) 2012ko abenduaren 12n emandako epaian, Epaimahai Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak ondokoa adierazi zuen: *"Sobre la autonomía y singularidad de la acción ejercitada, es de resaltar lo manifestado en sentencia de esta Sala de fecha 11 de mayo de 2004, recurso 3554/1999, en la cual se pone de manifiesto que: "La jurisprudencia del orden contencioso-administrativo, al menos, desde los años sesenta viene también admitiendo la aplicación de la figura del enriquecimiento injusto a determinados supuestos en el ámbito específico del Derecho administrativo (...) como principio general o como supraconcepto, que le otorga una cierta identidad y unidad, aunque ello no supone que no se manifieste con una cierta autonomía y singularidad en su proyección a la Administración respecto a su actuación sujeta al Derecho administrativo. Pero, en cualquier caso, son los requisitos establecidos por la jurisprudencia civil, acogidos expresamente por esta Sala, los que rigen y se aplican a los supuestos en que la Administración o un particular, eventual o supuestamente empobrecido, exige la restitución del enriquecimiento injusto o sin causa de un administrado o de una Administración, en este caso, de una entidad local. Por consiguiente, ha de reconocerse que el enriquecimiento injusto, como principio general y como específica acción, forma parte, por obra de la jurisprudencia, del ordenamiento jurídico y, en concreto, del ordenamiento jurídico administrativo".*

Pero es que además, debe significarse que son muchas las sentencias dictadas por este Tribunal sobre el posible enriquecimiento injusto de la Administración, la mayor parte producidas en el ámbito de la contratación administrativa (STS de 21 de marzo de 1991, 18 de julio de 2003, 10 de noviembre de 2004, 20 de julio de 2005 y 2 de octubre de 2006), en las que se parte de actuaciones realizadas por un particular en beneficio de un interés general cuya atención corresponde a una Administración pública, y su núcleo esencial está representado por el propósito de evitar que se produzca un injustificado desequilibrio patrimonial en perjuicio de ese particular".



Aztertzen ari garen kasuan, udalak erabili du Hierros Bidania S.L. enpresako jabetzako pabiloia eta inauterietako karrozak sustatzen dituen elkartearen esku jarri du, xede horrekin erabil dezala. Beraz, aurrekarietan aipatu den ordainagiria Kultura Departamentuko Teknikariak egiaztatu eta onartu ondoren, ordaintzearen aldeko iritzia azaltzen du Idazkari honek, beti ere kontuan hartuz egoera honen arduradunei ohartarazi behar zaiela horrelakorik berriro gerta ez dadin, eta, bere kasuan, dagokien erantzukizuna eskatu behar zaiela.

Aipatutako arrazoiak kontutan harturik, ordainketaren aldeko txostena aurkeztu du udal Idazkariak.

Egindako erreparoa altxatzeko eta Hierros Bidania S.L.ren faktura ordaintzeko proposamena bozkatu egin da:

1. Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
2. Patxi Amantegi (EAJ): Aldeko botoa
3. Nuria Carbonell (EAJ): Aldeko botoa
4. Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
5. Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Beraz, batzordeak aho batez diktaminatu du:

Lehena.- Udal Kontuhartzaileak egindako ingera altxatzea eta ondorengo zerrendan aipatzen den ORDAINAGIRIA ordaintzea, dokumentu honetan aipatu diren aurrekari eta oinarri juridikoak kontutan hartuta:

Hirugarrena	CIFa	Data	Faktura zk.	Kopurua	Azalpena	Kontratuaren egoera
Hierros Bidania, SL	B20096798	2018/11/30	176/1	6.957,50€	2018ko azaroko Usabalgo pabiloiaren alokairua	Ez du kontraturik. 2018ko urriaren 31n kontratua bukatu zen

Bigarrena.- Eragindako saileko arduradunari ohartaraztea, jardunbiderik gabeko enkarguak edo gastuak gauza ez ditzala, eta kasu honetan Ondareari buruzko legeria kontuan har dezala.

Hirugarrena.- Erabaki hau eragindako enpresari eta sailetako arduradunei jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar,



TOLOSAKO
UDALA

Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Udal kontuhartzaileak egindako 2019/01 ingera altxatzea.

2. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena 2. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

Parte-hartzeak:

Lehenik, Begoña Tolosa Mendia Ogasun batzordeburuak irizpena azaldu du. Jarraian,

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Bellotaren faktura da handiena eta esan duzun bezala onartzeko prest gaude, nahi eta alkateak aurre ostiko bat jo duen errugbian bezala eta egindako galderari erantzun ez dion.”*

... Alkatea: *“Agian nahi duzuna da erreferentzia egitea aipatu dituzun bi kontratu horiei eta egingo diot. Leidor kontratua kontratu txiki baten bitartez luzatu da. Irailerako jarriko da lizitazio berria eta OTaren luzapen horiek legearen barruan daude. Horrek aukera emango diogu lizitazioa ateratzeko garaian pliegoak aztertuagoak eta landuagoak ateratzeko . Uste dut legeren barruan dauden heinean ez dagoela besterik. “*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Olatz, berriz ere frogatu duzu baloiak aurrera ostikatzen Serge Blanco full-back handiaren trebezia duzula.”*

OGASUN BATZORDEKO 2019KO MAIATZAREN 30EKO IRIZPENA

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldiko faktura data dute. Horietatik bi 2018an jaso ziren, eta gainontzekoak 2019an, ondorengo taulan ikusten den moduan:



HARRERA DATA	FRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2018-11-13	2018-11-01	0700.601.01.153.20 2018	NJ SEGURTASUNA S.L.	C00629/18	SEGURTASUNA ETA OSASUNAREN KOORDINAZIOA 2018KO URRIA. HAINBAT KALEEN URBANIZAZIOA	484,00
2018-12-12	2018-12-01	0700.601.01.153.20 2018	NJ SEGURTASUNA S.L.	C00722/18	SEGURTASUNA ETA OSASUNAREN KOORDINAZIOA 2018KO AZAROA. HAINBAT KALEEN URBANIZAZIOA	484,00
2019-01-12	2018-12-31	0100.226.99.912.00 2019	TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.L.	180572	GABONETAKO ESKU ORRIA	242,00
2019-03-26	2018-10-31	0100.226.99.912.00 2019	TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L.	2182	SPOT ZAINDU	827,64
2019-03-01	2018-12-05	1000.226.07.341.00 2018	PAGOLA APEZETXEA ELIXABET	1/2018	IRENE CAMINOS-I EGINDAKO OMENALDIRAKO BERTSOAK	102,00
2019-04-26	2018-10-31	0800.201.01.338.00 2018	HIERROS BIDANIA S.L.	157	USABALGO LOKALAREN ALOKAIURUA. 2018KO URRIA	6.957,50

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2018ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2019ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Fakturak onartzeko proposamena bozkatu egin da:

6. Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
7. Patxi Amantegi (EAJ): Aldeko botoa
8. Nuria Carbonell (EAJ): Aldeko botoa
9. Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
10. Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hauek Osoko Bilkurara bidaltzea, onar ditzan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** ditu Itxitako ekitaldiko fakturak.



TOLOSAKO
UDALA

3. Hasierako onarpena: 2019/7 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean. 3. Aprobación inicial del expediente de modificación de crédito 7/2019, en la modalidad de crédito adicional.

Begoña Tolosa Mendia Ogasun batzordeburuak puntu honen eta ondorengo puntuen azalpenak eman ditu.

OGASUN BATZORDEKO 2019KO MAIATZAREN 30EKO IRIZPENA

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 2019/7 espedientea aztertu da.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu da.

Hau da proposamena:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.481.01.341.00 2019	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. KIROLAREN SUSTAPENA	334.800,00	10.000,00	344.800,00
GUZTIRA		334.800,00	10.000,00	344.800,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2019	DIRUZAINNTZA GERAKINA. GASTU OROKORRETARAKO	10.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			10.000,00



TOLOSAKO
UDALA

--	--

Hau guztia ikusirik, bozkatu egin da:

11. Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
12. Patxi Amantegi (EAJ): Aldeko botoa
13. Nuria Carbonell (EAJ): Aldeko botoa
14. Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
15. Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Honen arabera, Batzordeak aho batez diktaminatu du:

Lehena.- 7/2019 kreditu aldaketa espedientean jasotako kreditu gehigarriari hasierako onarpena ematea eta Osoko Bilkurari proposatzea onar ditzala.

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 7/2019 kreditu aldaketaren espedientea hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasieraz **onartu du** 7/2019 kreditu aldaketa espedientean jasotako kreditu gehigarria.

**4. Hasierako onarpena: 2019ko 4. Aprobación inicial de la modificación
dirulaguntzen eranskina aldatzea. del anexo de subvenciones de 2019.**

OGASUN BATZORDEKO 2019KO MAIATZAREN 30EKO IRIZPENA



2019ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena aztertu zaie batzordekideei.

Hauek dira proposatutako aldaketak:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin- betiko Aurrekont ua 2019	Tipoa
1000.481.01. 341.00	KIROL TALDEAK	3. Eranskina. Jarduera bereziak	-5.000,00	Konpetentzi lehiakorra
1000.481.01. 341.00	TAK	Arraunaren sustapena II	10.000,00	izenduna
1000.481.01. 341.00	GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA	Ahalmen berezien pertsontzako kirol eskaintza	5.000,00	izenduna

Eranskina aldatzeko proposamena bozkatu egin da:

16. Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
17. Patxi Amantegi (EAJ): Aldeko botoa
18. Nuria Carbonell (EAJ): Aldeko botoa
19. Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
20. Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Honen arabera, Batzordeak aho batez diktaminatu du:

Lehena.- Dirulaguntza eranskinaren aldaketei hasierako onarpena ematea eta Osoko Bilkurari proposatzea onar ditzala.

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2019ko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbetia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.



Beraz, Udalbatzak aho batez hasieraz **onartu du** dirulaguntza eranskinaren aldaketa.

5. 2018ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea. **5. Dar cuenta de la liquidación del presupuesto de 2018.**

OGASUN BATZORDEKO 2019KO MAIATZAREN 30EKO IRIZPENA

Kontuhartzaileak 2018ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		14.141.092,95
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		4.873.040,88
Aurrekontuko zordunak :	4.784.558,61	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	88.482,27	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		4.187.135,66
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	2.954.951,62	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.232.184,04	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		14.826.998,17
5.- Saldo kobragaitzak:		2.662.453,11
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		178.475,63
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		11.986.069,43

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	2.429.197,35
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-65.347,16
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.510.159,07
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	167.068,47
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	5.041.077,73



KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	5.080.097,07
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	3.175.759,65
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	8.255.856,72

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

6. 2019/1 kreditu txertaketa modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/444 Alkatetza Dekretuaren berri ematea.

6. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/444 del expediente de modificación de crédito 2019/1, en la modalidad de incorporación de crédito.

Begoña Tolosa Mendia Ogasun batzordeburuak seigarren puntutik hamaikagarren puntuko azalpenak eman ditu.

OGASUN BATZORDEKO 2019KO MAIATZAREN 30EKO IRIZPENA

2019ko aurrekontuari dagokion 1. kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Espedientea kreditu txertaketa modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak ondorengo hauek dira:

Kod.	Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
b	1 0100.226.03.924.00 2018	PUBLIZITATEA PARTAIDETZA	7.731,90
